AKTEA/02

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

(2021-01-26)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2021-01-26 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxea) Telematikoa (Zoom aplikazioaren bitartez)
Hasiera-ordua:	08:49
Amaiera-ordua:	09:04
Alkate-Presidentea:	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
Batzordekideak:	LEIZAOLA ZULUETA MAITANE PLATAS ARENAZA M. IDOYA ZUMETA GARRO ALAZNE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
Bertaratu ez direnak:	
Idazkaria:	URIARTE LEJARRAGA JURDANA

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

Aztergaiak

1.- Aurreko aktak irakurri eta onestea: 2020-12-22 TGB (38) eta 2021-01-19 TGB (01)

2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3. - Arresi kalea 50ean kokatutako eraikinaren etxebizitza duplexa egiteko obra lizentzia emotea onartzea.

4.- Etxeko olio zikina batzeko zerbitzu kontratua esleitzeko baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea.

5.- Bermeoko Udaleko berdintasun plana exekutatu eta garatzeko zerbitzu kontratua esleitzea.

6.- Sastarrak batzeko kamioiaren alokairu kontratua suntsiaraztea.

7.- 2021. urterako Bermeoko Udalaren prezio publikoak onartzea.

8. - Alkatetza Dekretuen berri emotea

9. - Eskari eta itaunak

Saioa hasi aurretik, bertaratu diren alkate eta zinegotzi guztiek, euren nortasuna eta espainiar lurraldean daudela egiaztatzeko erantzukizunpeko aitorpena egin dute.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA: 2020-12-22 TGB (38) ETA 2021-01-19 TGB (01)

Bertaratutako batzarkideek 2020ko abenduaren 22ko 38/2020 akta eta 2021eko urtarrilaren 19ko 01/2021 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik ez daukatela adierazi dute.

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

3. - ARRESI KALEA 50EAN KOKATUTAKO ERAIKINAREN ETXEBIZITZA DUPLEXA EGITEKO OBRA LIZENTZIA EMOTEA ONARTZEA.

Xedea

Arresi kalea 50ean kokatutako eraikinaren etxebizitza duplexa egiteko obra lizentzia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko irailaren 3an 78.927.794-M NAN zenbakidun andreak, Arresi kalea 50ean kokatutako eraikinaren etxebizitza duplexa egiteko obra lizentzia eskaria aurkeztu eban udalean. 2020ko urriaren 20an eta 2021ko urtarrilaren 18an dokumentazio osagarria aurkeztu da.

Bigarrena: 2021eko urtarrilaren 19an udal arkitektoak aldeko txostena egin eban.

Hirugarrena: 2021eko urtarrilaren 19an Urigintza Saileko teknikariak txostena eta erabagi proposamena egin ebazan.

Argudioak

Lehenengoa: Udal arkitektoaren txostenean aipatzen dan lez, Arresi 50ean kokatuta dagoen eraikina Bermeoko Alde Zaharraren eremuan sartuta dago, hau da, Bermeoko alde zaharra birgaitzeko Plan Bereziak dioena errespetatu beharko du.

Plan Bereziak eraikin honi ez dio babes mailarik ezartzen.

Oro har, badirudi, bi plantatan banatuko litzatekeen etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak egokiak direla.

Hala ere, eraikinaren fatxadan aldaketak emango direnez, fatxada nagusiaren birgaitze lanak, Bermeoko alde zaharra birgaitzeko Plan Bereziak dioena errespetatu beharko luke.

Bermeoko Alde Zaharra birgaitzeko Plan Bereziak bere 56. artikuluan fatxadaren baldintza estetikoei buruz dio, arotzeriaren materialak fatxada osoan berdinak izango direla.

Bestalde, Plan Bereziaren irizpideen arabera, fatxadako zuloak bertikaltasuna mantendu beharko lukete, eta fatxada osoa kontuan hartu beharko litzateke haien kokapena zehazteko.

2021eko urtarrilaren 13an aurkeztutako dokumentazio osagarrian, azaltzen da fatxada zuloen bertikaltasuna landuko dela eta arotzeriaren materiala eraikineko beste leihoen modukoa izango dela, diseinu, itxura, kolore eta material aldetik.

Aipatutakoa kontuan izanik, proiektua Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

zehazten duenera egokituko litzateke.

Behin proiektua egokituta, dagokion Elkargoak ikus-onetsia aurkeztu beharko dau udalak duplex etxebizitza burutzea baimentzeko.

Bigarrena: Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen dan lez, 78.927.794-M NAN zenbakidun andrearen eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 eta 210 artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen dauan ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoan araudiarekin bat dator.

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki- administrazioen Oinarriak arautzen dauan 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, obra lizentziak emoteko eskumena Alkatearen da, baina eskumen hori 2019ko ekainaren 21eko 1479. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: 78.927.794-M NAN zenbakidun interesatuari, Arresi kalea 50ean kokatutako eraikinaren eskatutako obrak egiteko lizentzia emotea udal arkitektoak adierazotako baldintza honeek betetzeko baldintzapean:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie, Udal Zerbitzu Teknikoei. Udalak baimenak beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe ematen ditu.
- Edozein kasutan, Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak ezartzen dituen zehaztapenak errespetatu beharko dira.

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

- Etxebizitzaren antolaketak Babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak bete beharko ditu, etxebizitza eta gizarte gaietarako sailburuaren 2009ko otsailaren 12ko agindua betez.
- Kontagailuak beste lokalarekiko independenteak izan beharko dira, baita irisgarriak ere irakurketa egin ahal izateko.
- Sukaldeko kanpaia ezin izango da aireztapen sistemara konektatu, etxebizitzak ez badu estalkira ke irteerarik, filtro sistemak erabili beharko dira.
- Beheko plantako fatxada, 2021eko urtarrilaren 13an aurkeztutako dokumentazioan zehaztutakora egokituko da.
- Leihoetako arotzeria etxebizitzetako bestelakoak izango da, diseinua, kolore eta materialean. Leihoen motxetak bestelakoak izango dira.
- Eraikuntzaren kode teknikoari dagokionez, martiaren 17ko 314/2006 dekretuak zehazten duena bete beharko da.
- Etxebizitza bakoitzak 5 metroko luzerako aria izango du, esekileku bezala.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

BIGARRENA: Instalazio obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udaletxean:

- Instalazioei eta egindako lanei jagoken obra amaiera ziurtagiria eta likidazinoa. Obra amaierako dokumentazinoa obra-zuzendari izan diran Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita jagokon Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko dan, **lanek, indarrean dagoan araudiagazko daukien egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea**.
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten dan dokumentazinoa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu dirala egiaztatzeko.

    1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko,

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

HIRUGARRENA: Obrearen aurrekontua 39.386,99 €koa da. Obrak egiteko exekuzino epea bi hilabetekoa izatea, hasteko epea hilabetekoa izatea eta, etenik badago, epea hilabetekoa izatea.

LAUGARRENA: Obra lizentzia honek balioa izateko, hondakinen kudeaketarako 258,39 euroko bermea ipini beharko da udal Diruzaintzan. Berme hori ipini arte ezingo dira obreagaz hasi.

BOSGARRENA: Obrea egiteko lizentziak balioa izateko, lizentzia honeri erantsita doazan baldintza orokorrak betetea.

SEIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

OBRA HANDIETAN BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK

Obra lizentzia emoten dauen erabagian agertzen diran baldintzakaz batera, beste baldintza honeek be, bete beharko dira:

1.- Dagokion arkitektoak idatzi eta jagokon alkargoak behar dan moduan oneretxia emonda aurkeztuko da proiektu teknikoa, eta, bai honi eta bai emoten dan lizentziari be zehatz lotuta egingo dira obrak.

2.- Berau kokaturik dagoan kaleko lerrokadura ofizialetara egokituko da eraikuntzea. Udal arkitektoak azalduko

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

dau horreek lerrokadurak zeintzuk diran.

3.- Obra lizentziaren kopia kanpotik ikusteko moduko leku baten egon beharko da lanak egiten diren bitartean, esaterako kolarreko kristalean, atarian, auzoko iragarki taulan…

4.- Lizentzia eskatu eta lortu ostean, eskatzailea honako honeetara egongo da behartuta:

a) Urigintza arloko arauak eta ezarritako baldintzak oso-osorik betetera. Honeen baldintzen artean, funtsezkoa izango da, aplikagarria dan kasuetan, jarritako ildo ofizialetara zehatz atxikitzea obrea.

b) Ordenantza fiskalek ezarten dabezan zergak ordaintzera. Eskaria egiten dan momentutik onartzen da betebehar hori.

c) Lizentzia dala-eta, sortzen diran gastu guztiak ordaintzera, bardin, bide publikoan, harri-zoletan, pasealekuetan, espaloietan, urbideetan, faroletan eta abarrean be; orokorrean, jabari publikoko objektu narriagarrietan sortu leikezan kalteak ordaintzera.

d) Bai obrea burutzen dagoan bitartean, bai honen amaieran be, udal zerbitzuei ikuskapena egiteko aukerea emotera. Ezarritako baldintzak bete dirala frogatuko dabe honeek ikuskapenak.

e) Lanek irauten daben bitartean gertatu leikezan intzidentzia guztien erantzulea izatera.

f) Indarrean dagoan legediak esijitutako ganerako betebeharrak betetera.

g) Ur kontagailua ipini beharko da, obrea burutzen dan bitartean kontsumitzen dan ura neurtzeko. Zuinketa Aktea izenpetu aurretik jarri beharko da kontagailu hori, Ur Hornidurea eta Ur Zerbitzuaren Kudeaketarako Erregelamenduaren 78. artikuluak xedatutakoa betez. Kontagailua ipinteko beharrezkoa dan eskaria egin beharko da udaletxe honetan, erregelamendu horren 5. artikuluak xedatzen dauenaren arabera.

h) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 19an argitaratu zan Bermeoko Udaleko Zaratei eta dardarei buruzko Udal Ordenantzea beteko da.

i) Hormigoi kamioiak ezin izango dira garbitu obran bertan, kamioiak garbitzean sortzen dan zementuzko karesnedun ura kainu-zuloetara joaten dalako eta kainu-zuloak itxi egiten diralako.

j) Udalak obrea hartu orduko Udal Zerbitzuek kainu-zuloak ikuskatu egingo dabez, eta itxita egon ezkero, esleipendunak garbitu egin beharko dauz, beti be udalak obrea hartu baino lehenago.

k) Zuinketa aktan kalearen egoerea zehaztuko da (galtzada-harriak eta espaloia), beharrezkoa bada, bizigarritasuna emon baino lehen konpondu ahal izateko.

5.- Horretarako legez baimenduta dagoan pertsona baten zuzendaritza fakultatibopean burutuko dira obrak; zuzendari fakultatibo horrek obran jarduteari izten badeutso, hiru egunen barruan eta jagokon alkargo ofizialak onetsitako ofizio bidez, obren sekzinoari emongo deutso horren barri. Jabeak, orduan, zuzendari fakultatibo barria izendatuko dau eta sekzinoari idatziz jakinarazo enkargu-orri egokia eta oneretxia emondakoan. Obrearen zuzendari fakultatiboak uko egin eta hiru egun igaro eta gero, izapide hori oraindino bete ez badau, Obra Sekzinoak lanen jarraipena etengo dau formalidade hori bete arte.

6.- Obreak irauten dauen bitartean proiektuan aldaketarik sartzea beharrezkoa bada, aurretik obra printzipalarentzat egin dan moduan, jagokon baimena eskatuko dau. Proiektua aurkeztu zanean eskatu bada edo egindako kitapenarena baino diru-kopuru handiagoa izateko arrazoirik eragiten ez bada, ez da sortuko eskubiderik. Holan izan ezean, diferentzia bakarrik ordainduko da.

7.- Eskatzaileak udaleko funtzionarioen esku itziko dauz planoen aleak onartuta eta zigilua emonda.

8.- Berehala erabiliko ez diran hutsune guztiak itxi egin beharko dira. Itxierea itxurosoa izango da eta ez da onartuko barrualdea ikusteko modurik izatea, ezta leundu eta pintatu bako trenkadarik, oholtzarik edo antzeko materialik be.

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

9.- Hasitako obrak ezin izango dira itzi amaitu barik. Hori gertatzen bada, udalak beharrezkoak diran xedapenak aginduko dauz. Lanak amaitzea agindu ahal izango dau, orubearen eta eraikinaren kargura.

10.-Obrak amaitu eta gero, jabeak jakinaren ganean ipiniko dau udala hamabost eguneko epe barruan. Jakinarazpen honegaz batera, obrea, onartutako proiektuaren arabera eginda dagoala frogatuko dauen obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

11.- Etxebizitzak okupatu aurretik, Alkatetzeari eskatuko jako bizigarritasun-zedulea. Udal aginteak ez dau baimenduko altzariak etxe-aldatzerik, ezta establezimendua irekiterik be, aurreko esan-multzoan ezarri dan moduan, emondako eraikuntza-lizentziaren baldintzetara lotuta egin dirala obrak egiaztatzen ez bada.

Era berean, solairu bakotxari ur-hornidurea mozten ez jakon arte ez jako emongo lizentziarik. Geroko erabiltzaileek formalizatuko dabe udaletxeko bulegoetan ur zerbitzuan abonadua izateko inskripzinoa. Kontratisteak izango dau solairu bakotxean ur-hodia ebagiteko baldintzea ez betetearen erantzukizuna.

12.- Obra lizentzia, kasu honeetan iraungiko da, ordaindutakoa itzultzeko eskubide barik:
- Udalak ezarritako epe barruan obrak hasi ez diranean.
- Obrak hasi eta gero, sei hilebetetan etenda geratu diranean.
- Horretarako ezarri dan epe zehatzean, edo, egon leitekeen luzapenean obrak amaitu ez diranean.

Epeak amaitu aurretik, arrazoitutako geldiarazpena edo berandutzea jakinarazo ezkero udalari, edo ezinbestekoagaitik izan dala frogatu ezkero, ez da kontuan hartuko epemugarik.

13.- Jabego eskubidea kenduta eta hirugarren pertsonen eskubideak gordeta emon dala baimena ulertuko da, eta onuradunak ezin izango dau erabili bere jardunean izandako erantzukizun zibila edo penala baztertzeko zein gitxitzeko.

14.- Lizentzia honetan aurreikusten ez dan guztirako, herriko arau subsidiarioek eta urigintzako ordenantzek xedatutakora egongo gara.

15.- Euskerearen Normalizazinorako Udal Ordenantzeak dinoana bete beharko da, era honetara: Obrearen seinaleak eta moeta guztietako oharrak, segurtasun arauen panelak... euskeraz idatzita egongo dira. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzi ezkero, euskerazko testua bi aldiz handiagoa izango da.

Obrea egingo daben enpresek obran publizidaderik egitekotan, euskeraz egingo dabe; euskeraz eta gaztelaniaz egitekotan, lehentasun osoa emongo jako euskereari.

16.- Beste baldintza batzuk:

- Eraikinaren barruan ipiniko da putzu septikoa eta 3.3. erregistro-tapea eukiko dau. Erkidegoaren jabetzako tokietan (kolarrean edo atarian, garajean, arrapalan eta abarrean) jarriko da eta debekatuta dago loian ipintea.

- 100 metro koadru bakotxeko eta teilaturainoko aireztatze-tximiniaz horniduko da loiea. Tximinia barrukoa izango da eta ez da joango inoiz fatxadatik. Etxebizitzen aireztatze-hodietatik kanpo egongo da.

- Oinaren okupazinoa 100 metro koadrura heltzen ez diran orube txikietan, aitatutako aireztatze-tximinia aurreikusi beharko da, aurreko esan-multzoan azaldutako baldintzetan.

- CTE-DB-SI arauak ezarritakoa betez, kolar edo ataria, loia eta beste establezimendu enparaduetako ateak kanporantz ireki beharko dira, kanpoko espazio publikoaren gunean sartu barik.

- Eskegita dagozan erropak ikustea guztiz eragotziko daben lamak edo saretak eukiko dabez eskegitokiek.

- Indarrean dagoan planeamenduko 4.4.4 puntua betez, babesteko hesi bat jarriko da obran, gitxienez metro 2ko altuerea eukiko dauena. Euki leiken edo leikezan atea edo ateak barrurantz zabalduko dira eta lanorduetatik kanpo itxita egongo dira.

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

- Kontuan euki beharko da, oztopo arkitektonikoak kentzeari buruz indarrean dagoan araudi guztian ezarritakoa.

- Eraikin barrien fatxadak kable edo linea ezarpenak ipintetik salbuetsita geratuko dira (elektrizidadea, telefonia, eta abar). Lurrazpikoak izango dira honeek nahitaez.

- Obreagaz hasi aurretik, eskatzaileak obraren eraginez kaltetuta geratu leikezan kanalizazino eta zerbitzu guztiak ezagutu beharko dauz, eta, horrretarako, hartu-emonak izan beharko dauz kalteak jasan leikezan enpresa guztiakaz, bakotxaren araudia kontuan izateko eta instalazinoak zehatz-mehatz non dagozan jakiteko. Eskatzailearen erantzukizuna da aitatutakoak ez ezagutzea.

- Mueta honetako obrak egiten diran eraikinentzat indarrean dagoan araudi hau beteko da:

- CTE
- CTE-DB-SI
- CTE-DB-SE
- CTE-DB-SUA
- CTE-DB-HS
- CTE-DB-HE
- CTE-DB-HR

- Obrak hasi aurretik, behar dan Zuinketa Aktea egin beharko da. Horretarako Bermeoko Udaleko Sail Teknikoari esan beharko jako, indarrean dagoan araudiak ezarten dauen moduan.

  Akta horretan, obran gastau daitekeen ura neurtzeko kontagailurik dagoan egiaztatu beharko da. Kontagailurik ez badago ezin izango da aktarik izenpetu.

- 1/1998 eta 346/2011 errege-dekretuek ezarritakoaren arabera, telekomunikazinoetako azpiegitura komunentzat proiektu berezia agertu behar da obrak burutzeko proiektuan.

- Gas kontagailua eraikinaren barru aldean ipiniko da. Kanpora aireatuko da eta sarbideko atea barru aldetik eukiko dau. Gas instalazinoa udaleko araudiari egokituko jako, sarbidea kolarretik edo ataritik eukiko dau eta banaketea, bertikala izango da, eskegitokietako barruko aldetik jarria; ezin izango da ikusi fatxadatik.

- 1991ko apirilaren 22ko erabagia, industria eta meategiak administratzeko zuzendariarena, etxeetan, jendea batzen dan lokaletan eta dendetan, gas-instalazinoen ikuskapenei buruzko indarreko arau teknikoak ulertu eta apliketako behin betiko jarraibideak emoten dauzena.

- Obrearen hesian, kartel bat ipini beharko da, eta, bertan azalduko dira, lanaren hasierako datea, eta amaitzeko epea be, horren barri guztiek izateko.

- Obra hondakinak eta lurrak mobitea.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan Arriskuen Prebentziorako "Prevención de Riesgos Laborales" Legea eta baliokideak bete beharko da.

Eraikitze era eraiste lanetako hondakinak kudeatzea: Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoa beteko da. Horrek esan gura dau, honeek hondakinak derrigorrez eroan behar dirala legeztatutako obra-hondakindegira. Lanak hasi orduko, obra-hondakindegiko titularrak emondako baimen-konpromisoa aurkeztu beharko da.

Lurrak mobiteko lanetatik datozen hatx edo lurren kasuan, lurrak bete eta egokitzeko be erabili leikez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzearen (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila) baimena beharko da eta udalarena be bai, 5.000 m3tik beherako bolumenekoentzat.

Lizentzia emoten dauen erabagia behin betikoa da administrazino bidean, eta, erabagi horren aurka eta hemen jarritako edozein baldintzaren aurka, administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nagusiko Eskumeneko Salan. Aitatutako errekurtsoa jarri aurretik, baldintza legez, administrazino honi holan egingo dala jakinarazo beharko jako.

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

Administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa ipinteko epea hilebete bikoa izango da, erabagi honen jakinarazpena hartzen dan hurrengo egunetik hasita.

Guzti hori, 1956ko abenduaren 27ko Administrazinoarekiko Auzien Jurisdikzinoaren 58. artikuluaren eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIZTEGITXOA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa	Recurso Contencioso-Administrativo
Aireztatze-hodiak	Conductos de ventilación
Aireztatze-tximinia	Chimenea de ventilación
Arau subsidiarioak	Normas subsidiarias
Araudia	Normativa
Auzitegi Nagusiko Eskumenaren Sala	Sala de la Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia
Azpiegiturea	Infraestructura
Baldintzea	Condición
Bizigarritasun-zedulea	Cédula de habitabilidad
Epemugea	Vencimiento
Eraikina	Edificio
Erantzukizuna	Responsabilidad
Esan-multzoa	Párrafo
Eskegitokia	Tendedero
Harri-zolea	Empedrado
Ildo ofizialak	Líneas oficiales
Iraungi	Caducar
Jabeen erkidegoa	Comunidad de propietarios
Kitapena	Liquidación
Legegintzako Errege-Dekretua	Real Decreto Legislativo
Lerrokadurea	Alineación
Loiea	Lonja
Meategia	Mina
Objektu narriagarria	Objeto que puede deteriorarse
Obra-hondakindegia	Escombrera
Oholtzea	Tablado
Oina	Planta
Onuraduna	Beneficiado
Orubea	Solar
Oztopo arkitektonikoak	Trabas arquitectónicas
Salbuetsita	Exento
Sarbidea	Acceso
Trenkadea	Mampara, tabique
Urbidea	Conducción de agua
Urigintzea	Urbanismo
Zergea	Impuesto
Zigilua	Sello
Zuinketa Aktea	Acta de Replanteo

4.- ETXEKO OLIO ZIKINA BATZEKO ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEKO BALDINTZA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.

Xedea

Etxeko olio zikina batzeko zerbitzua kontratatzea (esp. 2020 KON_IOS_0023)

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

Aurrekariak

Lehenengoa: Etxeko olio zikina batzeko zerbitzua kontratatu behar da. Hori horrela, 2020ko urriaren 9ko erabagi bidez, kontratazino espedienteari hasiera emon jakon.

Bigarrena: Espedientean egiaztatzen dan moduan, kontratua ezin da loteetan banatu eta bere osotasunean kaleratzen da, eta xedearen arabera zerbitzuen administrazio-kontratua da.

Higarrena: Aukeratutako prozedurea ireki oso sinplifikatua izan da, kontratuaren prezioaren arabera:

Kontratu honen balio estimatua, luzapenak eta kontratua aldatzeko aurreikusitako aukera guztiak barne, 28.000 eurokoa da, BEZa kanpo. Eta balio hori hartu da kontuan lizitazio prozedura eta egin beharreko publizitatea aukeratzeko.

Kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 30.800 eurokoa da, BEZa barne. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta.

Laugarrena: 2020ko azaroaren 12ko datan, Ingurumen Saileko teknikariak erabagi proposamena emon dau.

Argudioak

Lehenengoa: Kontsignazino nahikoa dago gastu honetarako. RC 2020/000591

Bigarrena: Kontratu administratibo baten aurrean gagoz, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 25. artikuluaren arabera.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 2. Xedapen gehigarriaren araberako Toki Entitateetako Kontrataziorako Arau espezifikoak aplikatuko dira.

Laugarrena: Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 159.6 artikuluan xedatuta dago zerbitzuetako prozedura ireki oso sinplifikatua erabili daitekela 35.000,00 €-rainokoak diranean, BEZ BARIK.

Bosgarrena: 2021ko urtarrilaren 15ean, udal kontuhartzaileak ikuskatze mugatuaren aldeko txostena igorri dau.

Seigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, erabagi hartzeko ahalmena alkateari jagoko. Baina 2019ko ekainaren 21eko 1.479 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazinoen ondorioz, ahalmen hori

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: 30.800 euroko gastua baimentzea etxeko olio zikina batzeko zerbitzu kontratua esleitzeko (2021: 7.700€; 2022: 7.700€; 2023: 7.700€ eta 2024: 7.700€) eta, indarreango udal aurrekontuaren 007/00 17000 227.99.08 partidan zorduntzea.

BIGARRENA: Baldintza Plegu Tekniko Partikularrak, Administratibo Partikularrak eta horreen eranskinak onartzea.

HIRUGARRENA: Deialdia zabaltzea, jagokon iragarkia argitaratuz Kontratugilearen Profilean.

LAUGARRENA: Ingurumen sailari eta ATB sailari erabagi hau jakinarazotea.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

5.- BERMEOKO UDALEKO BERDINTASUN PLANA EXEKUTATU ETA GARATZEKO ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

Bermeoko Udaleko berdintasun plana exekutatu eta garatzeko zerbitzu kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urriaren 27an, erabaki du berdintasun plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu kontratuaren espedientea onartzea eta publizitate gabeko prozedura negoziatuari hasiera ematea.

Bigarrena: 2020ko azaroaren 2ko dataz, gonbidapenak bidali dira hurrengo enpresei: Elhuyar-Zubize, S.L.U, LKS, S.Coop, Prospektiker, S.A, Gisma Asesoramiento, S.L eta Gehilan 2000, S.L.

Hirugarrena: Epe barruan, enpresak hauek aurkeztu dituzte proposamenak: Gisma Asesoramiento, S.L eta Gehilan 2000, S.L.

Laugarrena: Kontratuaren arduradunak proposamenen artxibo elektronikoak zabaldu ditu, eta hiru eguneko epea eman zaie bi lizitatzaileei dokumentazioa zuzentzeko.

Bosgarrena: Emandako epe barruan, bi enpresek dokumentazio jakina aurkeztu dute.

Seigarrena: Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, 2020ko abenduaren 2ko 2841

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Gisma Asesoramiento S.L enpresa lizitazio-prozesutik kanpo uztea erabaki da, ez baitu egiaztatu onartua izateko behar diren baldintzak betetzen dituela, eta horrekin batera negoziazio prozedurari hasiera ematea akordatu da.

Zazpigarrena: 2020ko abenduaren 2an, proposamen tekniko eta ekonomikoa aztertzearen akta egin du kontratuaren arduradunak, emaitza honekin:

PREZIOAren atala (BEZa kanpo)	Zerbitzua garatzeko eskainitako prestasunaren atala	Lan metodologiaren kalitatearen atala
24.700,00 €	Prestasun ez osoa, 21 ordu asteko 3 egunetan banatuta	Bermeoko Udaleko II. Berdintasun Planaren atalak adierazten dituen helburuak era orokorrean azalduta daude

Zortzigarrena: Aurrekoaren ondorioz, 2020ko abenduaren 9an, negoziaziorako errekerimendua bidali da Euskadiko kontratazio publikoko plataformaren bidez, eta 3 eguneko epea eman da eskaintza hobetzeko.

Bederatzigarrena: Emandako 3 eguneko epea igarota, lizitatzaileak ez du beste proposamenik aurkeztu. Hori dela eta, ulertzen da lehen eskaintzan mantentzen dela.

Hamargarrena: 2020ko abenduaren 15ean, balio-judizio bidezko irizpideen balorazio-txostena eman da. Hona hemen puntuazioa:

Enpresa	Lan metodologiaren kalitatea	Planaren betetze maila eta ekintzen lortzapen maila	GUZTIRA
Gehilan 2000, S.L	18	7	25

Hamaikagarrena: Kontratuaren arduradunak esleipen-irizpideak baloratzeko akta egin du, 2020ko abenduaren 15ekoa. Hurrengoa da atal guztien puntuazioa:

Lizitatzailea	Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak	Automatikoki kuantifikatu ahal diren irizpideak	Guztira

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

Gehilan 2000, S.L	25	55	80

Halaber, kontratua Gehilan 2000 S.L-ri esleitzea proposatzen da, onartutako lizitatzaile bakarra baita eta puntuaziorik onena lortu duena.

Hamabigarrena: 2020ko abenduaren 18an, dokumentazioa eta bermea eskatu zitzaizkion Gehilan enpresari. Enpresa horrek pleguak eskatzen duen dokumentazioa aurkeztu du eta baita 1.235,00 euroko behin betiko bermea.

Argudioak

Lehenengoa: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 151. artikuluaren arabera esleipenaren ebazpena arrazoitua izan behar da eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Horretaz gain, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

Bigarrena: Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153. artikuluak dio behin esleipena eginda, kontratua formalizatu beharko dela 15 egun balioduneko epean.

Epe horretan kontratua sinatuko ez balitz, esleipendunak kontratuari uko egin diola ulertuko da.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, eskumena alkatearena da, baina 2019ko ekainaren 21eko 1479 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Erabakiaren edukia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: Gisma Asesoramiento, S.L. merkataritza-sozietatea lizitazio-prozesutik kanpo uztea, ez baitu egiaztatu prozeduran onartua izateko behar diren baldintzak betetzen dituela, ebazpen honen xedapen zatian azaldutako arrazoiengatik.

BIGARRENA: Gehilan 2000, S.L enpresari esleitzea Bermeoko Udaleko berdintasun plana exekutatu eta garatzeko zerbitzu kontratua 24.700,00 eurotan BEZa kanpo (BEZari dagokion zenbatekoa: 5.187,00 euro; GUZTIRA: 29.887,00 euro), urtebeterako eta esleipendunak aurkeztutako proposamenarekin bat.

HIRUGARRENA: Kontratu hau gauzatzeko behar den gastua xedatzea, aurrekontuko 00800.92014-2279965 kontu-sailaren kargura.

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

LAUGARRENA: Gehilan 2000, S.L enpresari eskatzea 15 egun balioduneko epean kontratua formalizatzea, ebazpen hau jakinarazten denetik kontatzen hasita.

Aipatutako 15 egun balioduneko epean kontratua sinatuko ez balitz, kontratuari uko egin zaiola ulertuko da. Kasu horretan, bestelako enpresarik ez dagoenez 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan xedatutako errekerimendua egiteko, kontratazioa hutsik deklaratzeko proposamena egingo litzateke.

BOSGARRENA: Ebazpen hau kontratatzailearen profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

SEIGARRENA: Enpresa lizitatzaileei ebazpen hau jakinaraztea, erabaki honen aurrean dituzten errekurtsoak adieraziz.

ZAZPIGARRENA: Kontuhartzailetza eta Diruzaintza Sailei ebazpen honen berri ematea, jakinaren gainean egon daitezen behar diren ondorioetarako.

ZORTZIGARRENA: Kontratua formalizatu ondoren, kontratugilearen profilean argitaratzea eta REVASCONeri jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 346.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

BEDERATZIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

6.- SASTARRAK BATZEKO KAMIOIAREN ALOKAIRU KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

Xedea

Sastarrak batzeko kamioiaren alokairu kontratua suntsiaraztea

Aurrekariak

Lehenengoa: Sastarrak batzeko beharrezko baliabideak hornitu behar ziren zerbitzua eman ahal izateko. Helburu horrekin, renting bidezko ibilgailuen hornidura lizitazioa bideratu egin zen (2019/KON_IRE_0006 espediente zk). Ibilgailuen hornidura kontratuaren epea 60 hilabetekoa da.

Bigarrena: Sastarrak batzeko kamioiaren hornidura bideratzen zen bitartean, zerbitzua emateko ezinbestekoa zen sastar batze kamioi bat alokatzea.

Hirugarrena: 2020ko ekainaren 6an, Tokiko Gobernu Batzarrak sastar batze kamioi baten alokairurako baldintza orriak onartu zituen eta deialdia zabaldu zuen (2020/KON_IOS_0004,

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

espediente zk).

Laugarrena: 2020ko uztailaren 21ean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen sastarrak batzeko kamioi baten alokairu kontratua SISTEMAS Y VEHÍCULOS DE ALTA TECNOLOGÍA, S.A (SVAT) enpresari esleitzea, 32.550,00 eurotan, BEZa kanpo (guztira 39.385,50 euro). Kontratuaren epea 31 astekoa da.

Bosgarrena: 2019/KON_IRE_0006 espedientearekin lotuta, 2020ko irailaren 22an 2159 zk Alkatetza Dekretu bidez zuzendu zen 2020ko abuztuaren 20ko 1638 zk Alkatetza Dekretu bitartez egindako esleipena. Horretaz gain, hornidura kontratua adjudikatu zen.

Seigarrena: 2020ko urriaren 21ean renting bidezko ibilgailuen hornidura kontratua sinatu zen. Aipatutako horniduren artean, sastarrak batzeko alboko zama egiten duen kamioia dago.

Zazpigarrena: Zerbitzu saileko teknikariak txostena igorri du, 2020ko azaroaren 20ko dataz, kontratua suntsiarazteko arrazoiak azalduz. Hala, txostenak hurrengoa dio:

"KON_IOS_0004_2020 espedientearekin lotutako alokairu kontratuaren hasieran gorabeherak egon badira ere, enpresak hornidura gauzatu du eta zerbitzua enpresak erabilgarri jarri dituen baliabideen bitartez ematen da.

Kontratu printzipalari dagokionez, KON_IRE_0006_2019, baliabideen ustekabeko hornitzeko epea lortu da, berehalakoa izatean. Izan ere, sastarrak batzeko kamioaren hornidura 6 hilabeteko epean finkatzen zen enpresen hornitzaileen aldetik.

KON_IOS_0004_2020 espedientearekin lotutako hornidura, berez, kontratu zubia izan da, behin betiko ibilgailua lortzen zen artean. Egun, xede hori desagertu da, KON_IRE_0006_2019 espedienteak eragindako ibilgailuaren hornidura 60 hilabeterako den heinean.

Espediente bi hauekin sortutako egoerak, egiaz, beharrezkoak diren baliabideen bikoiztea suposatzen du, desegokia izanez ekonomikoki Bermeoko Udalarentzat.

Esanak esan, sortutako egoera zuzendu beharra dago, interes publikoari men eginez. Hau da, kontratu zubitzat hartzen dena suntsiarazi behar da, beharrizana desagertu baita eta mantentzeak kalte ekonomikoa suposatzen duelako administrazio honentzat eta, ondorioz, Bermeoko herriarentzat."

Zortzigarrena: Era berean, Idazkaritzako AOTk txostena eman du, 2020ko azaroaren 23an.

Bederatzigarrena: 2020ko abenduaren 1ean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du sastarrak batzeko kamioiaren alokairu kontratua suntsiarazteko espedientea irekitzea eta kontratistari 10

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

egun naturaleko epea ematea alegazioak egiteko, eta bere kasuan, horren aurka egiteko.

Hamargarrena: Aurreko atalean aipatutako epea igarota, ez dira alegaziorik aurkeztu kontratistaren aldetik, ezta aurkako adierazpenik ere.

Argudioak

Lehenengoa: Baldintza agiri administratiboen 20. klausulan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 211. artikuluan oro har aurreikusten direnak, eta zehazki 306. artikuluan ezarritakoak hornidura-kontratuetarako.

Horrela, aipatutako 306. artikuluaren b) atalak hurrengoa dio: *"son causas de resolución del contrato de suministro, además de las generales, el desistimiento una vez iniciada la ejecución del suministro o la suspensión del suministro por un plazo superior a ocho meses acordada por la Administración, salvo que en el pliego se señale otro menor".*

Bigarrena: Kontratua suntsiarazteko ahalmena administrazioak dituen perrogatiben barruan sartzen da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 190. artikuluan aipatutakoen artean, hain zuzen ere. Honela dio artikulu horrek:

"Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la presente Ley, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta."

Hirugarrena: Halaber, suntsiarazpenaren ondorioen inguruan, honakoa dio Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 307. artikuluak:

"1. La resolución del contrato dará lugar a la recíproca devolución de los bienes y del importe de los pagos realizados, y, cuando no fuera posible o conveniente para la Administración, habrá de abonar esta el precio de los efectivamente entregados y recibidos de conformidad.

2. En los supuestos establecidos en la letra a) del artículo anterior, solo tendrá derecho el contratista a percibir, por todos los conceptos, una indemnización del 3 por ciento del precio de la adjudicación del contrato, IVA excluido.

3. En los supuestos contemplados en la letra b) del artículo anterior, el contratista tendrá derecho a percibir, por todos los conceptos, el 6 por ciento del precio de adjudicación del contrato de los suministros dejados de realizar en concepto de beneficio industrial, IVA excluido, entendiéndose por suministros dejados de realizar los que

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

resulten de la diferencia entre los reflejados en el contrato primitivo y sus modificaciones aprobadas, y los que hasta la fecha de notificación del desistimiento o de la suspensión se hubieran realizado."

Laugarrena: Bestalde, jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 191. artikuluan eta 1098/2001 Errege Dekretuaren 109. artikuluan ezarritakoa da aplikagarria.

Bosgarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, eskumena alkateari dagokio.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: SISTEMAS Y VEHÍCULOS DE ALTA TECNOLOGÍA, S.A (SVAT) merkataritza enpresaren eta Bermeoko Udalaren arteko kontratuaren suntziarazpena deklaratzea, sastarrak batzeko kamioiaren alokairu hornidurarena, Zerbitzu saileko teknikariaren txostenean adierazitako interes publikoko arrazoiak direla-eta.

BIGARRENA: SISTEMAS Y VEHÍCULOS DE ALTA TECNOLOGÍA, S.A (SVAT) merkataritza erakundeari 1.648,08 euroko kalte-ordaina ematea, hau da, industria-onura gisa egin ez diren horniduren kontratuaren esleipen-prezioaren % 6ari dagokiona (BEZa kanpo), administrazioak kontratua bere kabuz bertan behera uztearen ondorioz.

HIRUGARRENA: Kontu-hartzailetza, Diruzaintza eta Zerbitzu sailetara akordio hau igortzea, jakinaren gainean egon daitezen behar diren ondorioetarako.

LAUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, erabaki honen aurrean dituen errekurtsoak adieraziz.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

7.- 2021. URTERAKO BERMEOKO UDALAREN PREZIO PUBLIKOAK ONARTZEA.

09:01tan Maitane Leizaola irten da.

Gaia

2021. urterako Bermeoko Udalaren prezio publikoak onartzea.

Argudioak

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko sail desberdinetatik erabiltzen diren prezio publikoak era bateratuan publikatzeko, kultura sailetik planteatzen diren aldaketak onartzeko eta gainontzeko 2021. urterako tarifak izozteko onartzea da espediente honen xedea,

Bigarrena: Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen Testu erregulatzailearen 3. artikuluaren arabera:

"3. artikulua:

Zerbitzu edo jarduera hauek eskaintzearen truke ordaindu beharko dira, bereziki, prezio publikoak:

1.- Ikastaroak, tailerrak, aisialdi eta kiroleko zerbitzu eta programak, kulturakoak, pertsona nagusienak, gazteenak, berdintasunekoak eta antzekoak, alor bakoitzean eskumena duten Udal sailek, enpresa sozietate publikoek edota erakunde autonomoek bultzatutakoak. "

Hirugarrena: Prezio publikoei buruzko kopuruari dagokionez, indarrean dagoen Abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauan honakoa xedatuta dago:

"44. artikulua. Kontzeptua.

Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte zerbitzuak emateagatik eta udal eskumeneko jarduerak egiteagatik, beti ere foru arau honen 21. artikuluko 1. atalean zehaztutako inguruabarretariko bat ere ematen ez bada.

"47. artikulua. Zenbatekoa.

1. Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua bete beharko du, gutxienez, prezio publikoen zenbatekoak.

2. Horrela aholkatzen duten gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoko arrazoiak daudenean, erakundeak aurreko atalean aurreikusitako mugaren azpitik dauden prezio publikoak ezarri ahal izango ditu. Kasu hauetan behar diren zuzkidurak izendatu beharko dira erakundearen aurrekontuetan, halakorik dagoenean, diferentzia estaltzeko."

"26. artikulua. Tasak ezartzeko erabakiak: txosten tekniko-ekonomikoa

Txosten tekniko-ekonomikoak ikusirik hartu beharko dira jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitearen ondoriozko tasak ezartzeko erabakiak nahiz zerbitzu berriak osorik edo zati batez finantzatzekoak; txosten horietan, agerian jarriko da halako zerbitzuen merkatu-balioa edo haien kostua nola estaliko aurreikusten den, hurrenez hurren.

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

Ez da aurreko lerroaldean aipatzen den txosten tekniko-ekonomikoa behar errebalorizazio edo eguneratze orokorrek eragindako erabakiak hartu nahi badira, ez eta tasen zenbatekoa gutxitu nahi denean ere, salbu eta haiei dagozkien zerbitzuen kostua nabarmen gutxituko denean."

Laugarrena: Kasu honetan, datorren urtera begira 2020. urterako onartutako prezio publiko gehienak berdin mantentzen direnez, ez da beharrezkoa txosten tekniko ekonomikoa jasotzea kasu hauetarako, baina Kultura saileko antzerki eta musika saioen katxeta bidezko prezioetarako egingo den aldaketarako beharrezkoa da. Dena den, prezio guztien justifikazioa eta txostena jaso da espedientean, iazko Bermeoko Udalak aurkeztutako zerbitzuen kostuen kopuruak oinarritzat hartuta.

Prezio publikoen kasuan finkatutako zenbatekoa gutxienez emandako zerbitzuaren kostua bete beharko du. Baxuagoa izango da interes publikoko arrazoiak daudenean eta beharrezkoak diren diru-kopuruak aurreikusita badaude.

Sail desberdinetako arduradunen proposamen eta txostenen arabera, orokorrean diru-sarrerak ez dituzte funtzionamendu gastuak estaltzen, hau da, defizita dago ematen diren zerbitzuetan, eta autofinantzazio bidez estaltzen dira gastuak. Aldatzen diren antzerki eta musika saioen katxeta bidezko prezio publikoetan udalaren aportazioa %54,75tik, %48,92kora izatea aurreikusten da, Kultura sailetik egindako aurreikuspenetan oinarriturik.

Bosgarrena: Abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 26. artikuluaren arabera prezio publikoak finkatzeko prozedura hauxe da:

"50. artikulua. Finkapena.

1. Korporazioaren osoko bilkurari dagokio prezio publikoak ezarri edo aldatzea; hala ere, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz, tokiko gobernu batzordeari eskuordetzeko ahalmena izango du. "

Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen Testu erregulatzailearen 5. artikuluaren arabera:

"5. artikulua

(…)

Prezio publikoekin lotutako zerbitzuak ematen dituzten Udal sailek, enpresa-sozietate publikoek edota erakunde autonomoek euren proposamenak aurkeztuko dituzte, dagozkien txosten teknikoekin batera, eta Ekonomia eta Ogasun Sailera igorriko dira, han izapidetzeko.

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

Ekonomia sail honek txosten tekniko ekonomikoa prestatuko du, gutxienez zerbitzuaren kostua estali dela egiazta dezan, eta prezio publikoa onartzeko proposamena Ogasun batzordera igorriko da diktaminatzeko. Irizpen hori Gobernu Batzarrera helduko da erabakia har dezan.

Aurreko atalean aurreikusitako mugaz azpiko prezio publikoak finkatu ahal izango dira baldin eta gizarte, ongintza edo kultura arrazoiengatik edo herriaren onuragatik hala komeni bada. Kasu horretan, Ekonomia eta Ogasun Sailera igorri beharreko proposamenak, herri onura hori justifikatzeaz gainera, alderik egotekotan hura estaltzeko adinako aurrekontu- dotazioa badagoela egiaztatu beharko du.

Prezio publikoa onartzeko erabakian ezinbestean adierazi beharko da zein indarraldi izango duen, eta berariaz aipatu beharko du balio erantsiaren gaineko zerga eta ezar litezkeen gainerako zergak ezarri behar izango zaizkion ala salbuetsita egongo den."

Seigarrena: 2021erako prezio publikoak era gardenean webgunean argitaratzeko, eranskin testu bateratua onartzea proposatzen da, kontuan hartuta kasu zehatzetan beste departamentuek egindako proposamenak. Honen beharrizana dagoela ondorioztatu da, kontuan hartuta 39/2015 Legearen 129. artikulua, besteak beste, eta Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen Testu erregulatzaile orokorra jada indarrean dagoela eta guztiei aplikagarri dela. Horretaz gain, indarrean zeuden kudeaketa arauak jaso dira, eta aipamen eguneratuak jaso dira kultura deskontuen inguruan.

Zazpigarrena: Prezio publikoaren zenbatekoa zehazterakoan kontuan hartu behar da BEZa aplikatu behar bada. Azaroaren 9ko 1994/7 Foru-arauak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoa, zehazki 7.8. artikuluan, zergari loturik ez dauden eragiketei buruz honakoa adierazten du:

"A) Administrazio publikoek zuzenean eginiko ondasun-emateak eta zerbitzu- prestazioak, bai eta C) eta D) letretan adierazitako entitateek eginikoak ere, baldin eta kontraprestaziorik gabe edo tributu erako kontraprestazio bidez egiten badira. "

Zortzigarrena: COVID-19 pandemiaren ondorioz sortutako egoera ekonomikoaren txosten makroekonomikoa gaineratu da espedientean. Egoera dela eta, datorren urtera begira udal prezio publiko gehienen tarifak mantentzea egokia izan daitekeela ondorioztatzen da, batez ere kultur, aisialdi eta euskara saileko ekintzetan herritar desberdinen parte-hartzea sustatzeko eta bermatzeko.

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: 2021. urterako antzerki eta kontzertuen katxeta kopuruak aldatzea onartzea eta sarreren prezio publikoak eta deskontuak mantentzea onartzea.

Antzerkia eta musika saioak Katxetaren arabera	Prezioa	Deskontuak (%25)
Umeen antzerkia	4€	--
Antzerki arinak	3 €	--
Amateur edo berezia	5 €	--
600 €-1.500 € (1.815 € arte, BEZ barne)	6 €	4,50 €
1.501 €-2.500 € (3.025 € arte, BEZ barne)	8 €	6 €
2.501 €-4.000 € (4.840 € arte, BEZ barne)	10 €	7,50 €
4.001 €-tik gora (4.841 € , BEZ barne)	12 €	9 €

BIGARRENA: Gainontzeko udal prezio publikoen tipoak 2021. urterako mantentzea onartzea.

HIRUGARRENA: Testuen aldaketei buruz, jarraian jasotako udal prezio publiko guztien testu eranskin bateratua onartzea.

LAUGARRENA: Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako 2021. urterako prezio publikoen aldaketen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea onartzea, aldaketa hauen berri Antolakuntza sailari, Kultura sailari, Euskera sailari, Liburutegi eta Zerbitzu sailari ematea.

TESTUETAN ALDAKETAK:

UDAL ESKUMENEKO JARDUERAK EGITEAGATIK EDO ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN TESTU ERREGULATZAILEAREN PREZIO PUBLIKOEN TARIFEN ERANSKINA.

2021. URTEKO PREZIO PUBLIKOEN TARIFEN ERANSKINA

1.- Kultura, Euskera, Liburutegi eta Zerbitzu sailak emandako zerbitzuei dagozkien prezio publikoen zenbatekoaren eta tarifen eguneraketa hauxe da:

Zerbitzu edo jarduera mota	Kuota
1.- EUSKARA IKASTAROAK, TAILERRAK ETA ANTZERKIAK	
1.1.- Ume eta gaztetxo etorkinentzako euskara eskola lagungarriak. Matrikula.	10,00 €
1.2.- Heldu etorkinentzako euskara eskolak. Matrikula	10,00 €
1.3.- Gurasoentzako euskara eskolak. Matrikula	20,00 €
1.4.- Antzerki tailerra. Matrikula	115,00 €
2.- KULTUR EKINTZAK: ANTZERKI, KONTZERTU ETA JAIALDIAK	

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

2.1.- Umeen antzerkia sarrera prezioa	4,00 €
2.2.- Antzerki arinen sarrera prezioa	3,00 €
2.3.- Antzerki amateur edo berezien sarrera prezioa	5,00 €
2.4.- 600 €-1.500 € (1.815 € arte, BEZ barne) katxeta antzerkian, oinarrizko sarrera prezioa	6,00 €
2.5.- 600 €-1.500 € (1.815 € arte, BEZ barne) katxeta antzerkian, sarrera prezioa deskontua	4,50 €
2.6.- 1.501 €-2.500 € (3.025 € arte, BEZ barne) katxeta antzerkian, oinarrizko sarrera prezioa	8,00 €
2.7.- 1.501 €-2.500 € (3.025 € arte, BEZ barne) katxeta antzerkian, sarrera prezioa deskontua	6,00 €
2.8.- 2.501 €-4.000 € (4.840 € arte, BEZ barne) katxeta antzerkian, oinarrizko sarrera prezioa	10,00 €
2.9.- 2.501 €-4.000 € (4.840 € arte, BEZ barne) katxeta antzerkian, sarrera prezioa deskontua	7,50 €
2.10.- 4.001 €-tik gora (4.841 € , BEZ barne) katxeta antzerkian, oinarrizko sarrera prezioa	12,00 €
2.11.- 4.001 €-tik gora (4.841 € , BEZ barne) katxeta antzerkian, sarrera prezioa deskontua	9,00 €
2.12.- Gabonetako pailazoen jaialdiaren umeen sarrera prezioa	5,00 €
2.13.- Gabonetako pailazoen jaialdiaren nagusien sarrera prezioa	10,00 €
3.- NESTOR BASTERRETXEA ARETOA: ZINEKO PREZIOAK	
3.1.- Sarrera orokorraren prezioa	5,20 €
3.2.- Ikuslearen eguneko sarrera prezioa (astelehena)	4,50 €
3.3.- Umeen sarrera prezioa	4,20 €
4.- ARGITALPEN PREZIOAK	
4.1.- Jaietako liburuen salmenta prezioa ale bakoitzeko	0,50 €
5.- PUBLIZIDADEA JARTZEAGATIK PREZIOA	
5.1.- Bermeon Zer? agendan publizitatea jartzeagatik prezioa	250,00 €
6.- UDAL LIBURUTEGIKO ZERBITZUEN PREZIOAK	
6.1.- Liburutegian ateratzen diren fotokopiak, orriko prezioa	0,10 €
6.2.- Liburutegian internetetik jaitsita edo datu-baseetako prezioa	0,20 €
6.3.- Informazioa A4 orrian ateratzea, zuri-beltzean, orriko prezioa	0,20 €
6.4.- Liburutegian internetetik jaitsita edo datu-baseetako prezioa	0,30 €
6.5.- Informazioa A4 orrian ateratzea, koloretan,orriko prezioa	0,30 €
6.6.- Liburutegian internetetik jaitsita edo datu-baseetako prezioa	0,95 €
6.7.- Informazioa CDan ateratzea, prezioa	0,95 €
7. UDAL BALIABIDEAK UZTEAREN PREZIOAK	
7.1.- Plastikozko hesia, unitatea	4,72 €
7.2.- Burdinazko hesia, unitatea	3,98 €
7.3.1.- Plastikozko mahaia, unitatea	12,72 €
7.3.2.- Plastikozko mahaia FRONTOIRAKO, unitatea	14,00 €
7.4.1.- Egurrezko mahaia eta bere astoak, unitatea	12,72 €
7.4.2.- Egurrezko mahaia eta bere astoak FRONTOIRAKO, unitatea	14,00 €
7.5.1.- Egurrezko aulkia, unitatea	2,15 €
7.5.2.- Egurrezko aulkia FRONTOIRAKO, unitatea	2,41 €
7.6.- Konoa, unitatea	1,47 €
7.7.1.- 4 modulu arteko tarima eta eskailera	166,23 €
7.7.2.- 4 modulu arteko tarima eta eskailera FRONTOIRAKO	191,90 €
7.8.1.- Eskenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera	457,11 €
7.8.2.- Eskenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera FRONTOIRAKO	482,76 €
7.9.1.- Eskenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera	1010,82 €

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

7.9.2.- Eskenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera FRONTOIRAKO	1060,43 €
7.10.- Frontoiko zoruaren babes goma-alfonbra	143,66 €
7. 11.1- Proiektorea	17,76 €

2. KULTUR EKINTZEN PREZIO PUBLIKOAK KOBRATZEKO KUDEAKETARI BURUZKO ARAUAK:

2.1. Onuradunentzako deskontuak ez dira metagarriak izango.

2.2. Tarifen diru-bilketa, estatutuak edo esleipen-kontratuak betez, enpresa publiko edo enpresa entitate publikoek egiten badute edo enpresa pribatuek, mistoek edo, oro har, merkataritza-enpresek, eta beren izenean igorritako tiketak edo ordainagiriak erabiltzen badituzten, tarifa horietan BEZa barnean dagoela ulertuko da.

2.3. BEZaren zerga-tasak aldatzen badira, tarifetatik sortzen diren zerga-oinarriei ezarriko zaizkie indarrean dauden BEZaren zerga-tasak, eta dagokion kuota kalkulatuko da.

2.4. SARRERAK: Sarrera edo bonua eskuratzen den unean ordaindu beharko da, eta ez da dirurik itzuliko, sarrera erreserba baterako erosi, eta erreserbatutako instalazioa erabiltzeko egoera egokian ez badago izan ezik.

2.5. Kultur antzerki eta kontzertuen prezio publikoetako deskontuak kolektibo hauentzat finkatzen dira:

- Gazteak, 29 urte artekoak.
- Adinekoak, 65 urtetik gorakoak.
- Ezgaituak, %33a baino gehiagoko ezgaitasuna edukitzea. Foru Aldundiko txartelaren bitartez kreditatu beharko da.
- Langabetuak, dagokion agiriarekin kreditatuta.

2.6. Elizan egiten diren kontzertuak, ikusleentzat dohainik izango dira.

2.7. Urtean behin, nagusien saio batean eta beste bat umeen saio batean, katxeta gehi takila modalitatea erabili ahal izango da Kultura sailetik. Kasu hauetan antzerki konpanien umeen sarrera prezioa 4,00€-6,00€ bitartekoa izango da eta antzerki konpanien nagusien sarrera prezioaren kasuan, 10,00€-12,00€ bitartekoa.

3. UDAL BALIABIDEAK UZTEAREN PREZIO PUBLIKOAK ETA FIDANTZAK KOBRATZEKO KUDEAKETARI BURUZKO ARAUAK:

3.1. SUBJEKTU PASIBOAK: Eskatzailea nor den kontutan izan barik, ekintza bera irabazi asmo

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

bakoa denean prezio publikoa ordaintzea salbuetsita egongo da.

3.2. Prezio publikoak aplikagarria izango dira ere gune eta eraikin publikoak ez diren tokietan antolatutako ekimenetarako udalak utzi dezakeen ondasunentzat.

Tarifen arabera prezio publikoaren kontura eskatu ahal izango diren kopuruak eskatutako edo emandako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta tarifa bakoitzerako adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu.

3.3. KUDEAKETA: Zerbitzua edo jarduera eskatzeko era gune eta eraikin publikoetan ekimenen antolaketaren prozesuan aurreikusitako eskaera orria aurkeztea izango da (IN-138). Bertan argi zehaztu beharko da ondasun mota eta kopurua.

3.4. Eskatzaileak, udalak zerbitzua onartzeko erabakiaren jakinarazpena hartzen duen egunetik hasita, egun biko epean, eta beti ere, ekintzari hasiera eman aurretik, prezio publikoaren autolikidazioa aurkeztu beharko du Berhaz bulegoan. Ordainketaren froga agiria aurkeztu ezean eta erabakian bertan adierazitako bestelako baldintzak bete ezean, ekimena bertan behera geratuko da eta baimen baldintzatua indargabetu egingo da.

Autolikidazioa ordaintzeko epea aurkezten denetik 10 egunekoa izango da, eta epean ez ordaintzean, premiamenduzko prozedura aplikatuko da.

3.5. FIDANTZAK: Ordenantza honetan aitatutako udal ondasunak uzteagatik, prezio publikotik aparte, fidantzak ere eskatuko dira eta gune eta eraikin publikoetan ekimenen antolaketaren prozesuan aurreikusitako epean edo momentuan aurkeztu/ordainduko ditu eskatzaileak. Uzten diren ondasunen kopuruaren arabera fidantzen zenbatekoak honako hauek izango dira:

Ondasuna	Kopurua	Fidantza
1- Plastikozko hesiak	1tik 20ra	87,12 €
	1etik 21era edo gehiagora	261,36 €
2- Burdinazko hesiak	1tik 20ra	48,58 €
	1etik 21era edo gehiagora 50eraino	145,74 €
	1etik 51era edo gehiagora 90eraino	291,49 €
3- Plastikozko mahaiak	1etik 10era	211,65 €
	1etik 11ra edo gehiagora	423,30€
4- Egurrezko mahaiak euren astoekaz	1etik 10era	211,65 €
	1etik 11ra edo gehiagora	423,30 €
5- Egurrezko aulkiak	1etik 30era	55,90 €
	1etik 31ra edo gehiagora 60raino	139,76 €
	1etik 61era edo gehiagora 90eraino	223,61 €
	1etik 91era edo gehiago	279,51 €

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3

6- Konoak	1etik 30era	24,10 €
	1etik 31ra edo gehiagora 60raino	60,26 €
	1etik 61era edo gehiagora 90eraino	96,41 €
	1etik 91era edo gehiago	120,52 €
7- 4 modulu arteko tarima eta eskailera		195,54 €
8- Eszenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera		391,07 €
9- Eszenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera		977,68 €
10- Proiektorea		35,00 €

4. Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen testu erregulatzailearen eranskina da testu hau.

09:03tan Maitane Leizaola sartu da.

8. - ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkatetza dekretuen barri eman da.

9. - ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orri oinean sinatzailea eta data

CSV: 07E50005C1BB00R6P7K5Q5W3K3